

**Ordiziako Udala**  
(Gipuzkoa)

2017IOSB0001

Ordizian, **2017ko urtarrilaren 26an** UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

**BERTARATUTAKOAK:**

**LEHENDAKARIA:**

José Miguel Santamaría Ezeiza Jn.

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako EH Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako EH Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako EH Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi	Ordiziako EH Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako EH Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Sra. Maria Jesus Soto	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos


**IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

**IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea

**KONTU-HARTZAILEA:**

Mikel Zubizarreta Elicegui jauna



**Ordiziako Udala**  
(Gipuzkoa)

2017IOSB0001

## **BERANDUAGOKO SARTZEAK**

Joseba Aranburu Ganzarain 3.puntuan batu da bilkurara, bere izendapena eta zinegotzi jabetza hartzeko.

## **AZTERTUTAKO GAIAK**

### **EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

1. 2016ko abenduaren 22an egindako osoko bilkurako akta onartzea.
2. Abenduko Alkatetza Dekretuen berri ematea.
3. EAJ-PNV taldeko zinegotziaren izendapena
4. Gipuzkoako Ur Partzuergoaren Estatutuak aldatzea
5. 0005/2017 zenbakidun dekretuaren kontu ematea Tokiko Gobernu Batzordeko kidea eta Lehengo Alkateordea izendatzeko
6. Gai Arrunten Informazio Batzordeko kidea izendatzea
7. Udaleko ordezkariaren izendapena ORDIZIA LANTZEN S.An
8. Udaleko ordezkariaren izendapena SASIETAn
9. Galderak eta eskaerak

### **PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:**


Informazio Batzordeetan, Erakunde Autonomoetan eta menpeko erakundeetan zinegotziak izendatzea.

## **ORDUTEGIA**

**HASIERA: 19:00etan**

**AMAIERA: 20:20an.**





## **1.- 2016ko abenduaren 22an egindako osoko bilkurako akta onartzea.**

### Proposamena

2016ko abenduaren 22ko ohiko Osoko bilkurako akta onartzea

### Eztabaida:

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaltu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte.

#### Dubreuil jn.

Adierazi du 10. puntuan "galderak eta eskaerak" puntuan, gaztelerazko aktaren 17. orrialdean bere interbentzioa ez dela behar bezala jaso.

Aktan jasotzen da Dubreuil jaunak adierazi zuela "*no cree que el Alcalde deba votar dentro de la mancomunidad lo que el pleno le dicte*" eta berak benetan esan zuela edo esan nahi izan zuela "*debe aceptarse el voto en conciencia del Sr.Alcalde*".

#### Eguren jn.

Esan du 10. puntuan "Galderak eta eskaerak" puntuko 16. orrialdean Alkatea UPABI eremuaz ari denean eta esan duenean aurreko legealdian ezer kudeatu gabe jaso dutela eta dena egin izan dutela diotenean hori ez dela guztiz zehatza edo behintzat ez dela erabatekoa.

Alkate jaunak gainera esan zuen *urbanizazioa obra ilegal dela*. Esaldi hori jasotzea nahi du. Gainera, Alkate jaunaren interbentziorik, 16. orrialdean, GARBIGUNE eremuaz ari direnean, 2015. urtean eremuaren egoera jaso dutela oinordetzan ezer aurreratu gabe, eta duela gutxi herritarren partaidetza programa jarri dela martxan eremu horretan Arau Subsidiarioen aldaketa tramitatzen jarraitzeko dioten tokian, Alkate jaunak horrekin batera adierazi zuen *eremu hori ere legez kontrako egoeran zegoela*. Esaldi hori berariaz jasotzea nahi du. Azkenik, adierazi du, 17. orrialdean, alkatearen interbentziorik Aralarren kontserbazioari buruz osoko bilkuran adostu zen mozioaren inguruan, interbentzio horren barruan bere esaldi bat azaltzen dela jakinarazi du, bertan Alkateari galdetu zion ea jarrera horrekin jarraituko zuen, alegia, osoko bilkurak agintzen diona entzun eta asumitu gabe jarraitu behar ote duen. Eguren jaunaren interbentzio modura jaso beharko litzateke.

Idazkariak zehaztutako zuzenketak egin ditu.

### Bozketa


Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV4, Ordiziako EHBildu5, Ordizia Orain1, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 1 (Soto Andrea ez zenez bilerara joan, abstenitu egin da)

**Ondorioz Alkate jaunak akta onartutzat eman du.**



## **2.- Abenduko Alkatetza Dekretuen berri ematea.**

### Maiza andrea

Bosgarren orrialdean zerrendatutako bi dekreturi buruz galdetu du, B 16/1261 zenbakidun eta B 16/1265 zenbakidun dekretuak, ez baitute espedientearen gaia zehazten. Gauza bera gertatzen da B 16/1241 dekretuarekin ere.

Idazkari andreak informazioa eman dio.

Maiza andreak horrekin batera eskatu du espedientearen goiburuko datuak ere euskeraz ipintzeko.

### Sukia andrea

Seigarren orrialdean zerrendatutako B 16/1165 dekretuari buruzko informazioa eskatu du.

Alkate jaunak eskatutako informazioa eman dio.

***Osoko bilkura jakinaren gainean dago.***

## **3.- EAJ-PNV taldeko zinegotziaren izendapena**

Idazkari andreak jakinarazi du Hauteskunde Batzorde Zentralak egiaztatutuna bidali duela JOSEBA ARANBURU GANZARAIN Angelica Moreno Heras zinegotzi andrea bere karguan ordezkatzeko.

Bestalde, jakinarazi du bateraezintasun kausen eta jardueren aitortpena aurkeztu duela eta horrekin batera ondare-ondasunen eta sozietateetako partaidetzaren aitortpena ere bai.

Joseba Aranburu Ganzarain eseri da eta Idazkariak euskaraz irakurri du kargua hartzeko juramentu formula " Zin egiten duzu edo hitz ematen duzu, zure kontzientzia eta ohoreagatik, zintzo beteko dituzula zinegotzi karguari dagozkion obligazioak, Erregeari leial, eta Konstituzioa zaindu eta zainaraziko duzula Estatuaren arau nagusizat?


Aramburu jaunak erantzun du "bai, lege-aginduz zin egiten dut".

**Alkate jaunak udalbatzako domina eman dio eta zinegotzi kargua hartu du.**



## **4.- Gipuzkoako Ur Partzuergoaren Estatutuak aldatzea**

### Eztabaida



Sukia andrea

Adierazi du Partzuergoari eta Foru Aldundiai informazioa eskatu diela eta jasotako informazioa zinegotzi guztiei bidali diela.

Esan du Foru Aldunditik adierazi diotela txosten bat egiten ari direla adskripzio honek Aldundiari ekarriko dizkion ondorioen inguruan etaamaitzen dutenean horren berri emango dutela.


Bozketa

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 y PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Idazkariak akordio honen ziurtagiriak bidaliko ditu Uren Partzuergora.**



**5.- 0005/2017 zenbakidun dekretuaren kontu ematea Tokiko Gobernu Batzordeko kidea eta Lehengo Alkateordea izendatzeko**

**0005. DEKRETUA**

**DECRETO Nº 0005**

**HONAKO HAU IKUSIRIK:**

2015eko uztailaren 14ko 694. Alkate Dekretuaren bidez, Tokiko Gobernu Batzordeko kide izendatu zen Angelica Moreno Heras andrea, EAJ/PNV taldeko zinegotzia.

2015eko uztailaren 14ko 695. Alkate Dekretuaren bidez, Angelica Moreno Heras andrea, lehenengo alkateorde izendatu zen.

2016ko abenduaren 13an Angelica Moreno Heras andreak zinegotzi karguari uko egin zion.

Toki-Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 23.3 atalak, Udal Araudi Organikoaren 19. artikulua eta Toki-Erakundearen Antolakuntza, Jarduera eta Lege-jaurbidea arautzen duen azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege-dekretuko 41.3 eta 46.1 atalek ematen dizkidaten aginpideak.


**A LA VISTA DE:**

El Decreto de Alcaldía nº 694 de fecha 14 de julio de 2015, por el que se designó, entre otros, a la concejal del partido EAJ/PNV, Dña. Angélica Moreno Heras, miembro de la Junta de Gobierno Local.

El Decreto de Alcaldía nº 695 de fecha 14 de julio de 2015 por el que se nombró a Dña. Angélica Moreno Heras, primera Teniente de Alcalde.

La renuncia presentada por Dña. Angélica Moreno Heras el 13 de diciembre de 2016 a su cargo de Concejala.

Las atribuciones que me confiere el art. 23.3 de la Ley 7/1985, de 2 de Abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, el art. 19 del Reglamento Orgánico Municipal y los arts. 41.3 y 46.1 del Real Decreto 2.568/1986, de 28 de Noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y



**ONDORENGOA ERABAKI DUT:**

**Lehena:** Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna, EAJ/PNV taldeko zinegotzia, Tokiko Gobernu Batzordeko kide izendatzea:

**Bigarrena:** Jose Ignacio Iturrioz Gotor, Udal honetako lehenengo alkateorde izendatzea, hots, Tokiko Gobernu Batzordeko kide den zinegotzia.

**Hirugarrena:** Alkatea absente, kanpoan edo gaixorik egongo balitz, indarrean dagoen legeriak aitortzen dizkidan ahalmen eta eskumenak, bereziki bankuetako ordain-beharrak baimentzekoei buruzko agindumateak, alkateordeek egingo dituzte, beti ere ezarritako ordenaren arabera.

**Laugarrena:** Afera hauen inguruan Alkateak herritik irten beharko balu, dekretu bidez adieraziko du absentiaren iraupena eta bere eskumenak bere gain hartuko dituen Alkateordea izendatuko du.

Ordezkapen hau ez balitz espresuki egingo, Alkatea lehenengo Alkateordeak ordezkatuko luke, eta hura ere ez balitz egongo, bertan egongo litzatekeen Alkateorderen batek; ebazpen honetan izendatutako hurrenkeran. Alabaina, horren berri eman beharko zaie udalbatzako gainerako kideei, eta egun berean, jarduneko Alkate gisa, ezin izango dute jardun berrietako bakar batek baino gehiagok.

**Bosgarrena:** Dekretu honen berri emango zaio alkateordeari. Gainera, bertan adieraziko zaio jarduneko Alkate gisa buruturiko ekintzen berri Alkateari jakinarazi beharko diotela eta ezin izango duela Alkate honek lehendik eginiko eskuordetzak aldatu edo eskuordetza berriak egin.

**Seigarrena:** Dekretu hau jakinaraztea Udalaren sail ezberdinetako eta Udalaren menpeko erakundeen arduradunei, udalbatzarrari egingo duen lehendabiziko osoko bilkuran honako dekretu honen berri ematea eta laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web orrian argitaratzea.

**Zazpigarrena:** Dekretu hau Alkatetzaren dekretu-liburuan kopia beharko da hitzez hitz, eta behean ageri

**TENGO A BIEN:**

**Primero:** Nombrar miembro de la Junta de Gobierno Local a Dn. José Ignacio Iturrioz Gotor, concejal perteneciente al grupo EAJ/PNV.

**Segundo:** Nombrar Primer Teniente de Alcalde de este Ayuntamiento al concejal miembro de la Junta de Gobierno Dn. José Ignacio Iturrioz Gotor.

**Tercero:** Establecer que en caso de ausencia, vacante o enfermedad de este Alcalde, las atribuciones y competencias que le reconoce la legislación vigente, y, en especial la ordenación de pagos y la autorización de talones bancarios, serán realizadas por los Tenientes de Alcalde por el orden establecido.


**Cuarto:** A estos efectos, este Alcalde, cuando tenga que ausentarse del término municipal, establecerá, mediante decreto, la duración de su ausencia, designando al Teniente de Alcalde que tenga que asumir sus competencias.

De no conferirse esta delegación expresamente, este Alcalde será sustituido por el Primer Teniente de Alcalde, y, en su defecto, por cualquiera de los otros Tenientes de Alcalde que se encuentren presentes, en el orden previsto en esta resolución. Deberán dar cuenta de ello al resto de la Corporación, sin que durante el mismo día pueda actuar como Alcalde en funciones más de uno de ellos.

**Quinto:** Comunicar este decreto al concejal nombrado, haciéndole saber que tendrá que mantener informado a este Alcalde del ejercicio de sus atribuciones como Alcalde en funciones, no pudiendo, en el citado ejercicio, ni modificar las delegaciones ya efectuadas por este Alcalde con anterioridad, ni otorgar otras nuevas.

**Sexto:** Comunicar este decreto a los responsables de los diferentes Departamentos municipales y entes dependientes del Ayuntamiento, dar cuenta del mismo al Ayuntamiento Pleno en la primera sesión que celebre y publicarlo, en extracto, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y la página web municipal.

**Séptimo:** El presente decreto debe transcribirse en el libro de decretos y tendrá efectividad a partir del día



**Ordiziako Udala**  
(Gipuzkoa)

2017IOSB0001

den dataren hurrengo egunean sartuko da indarrean.

siguiente al de su fecha.

José Miguel Santamaría Ezeiza Alkateak agindu eta sinatu du, hori guztia, nik, Ordiziako Behin Behineko Idazkariak, ziurtatu dut.

Lo manda y firma el Alcalde, José Miguel Santamaría Ezeiza, de todo lo cual yo, Secretaria accidental, Certifico.

***Osoko bilkura jakinaren gainean dago.***



## **6.- Gai Arrunten Informazio Batzordeko kidea izendatzea.**

### Proposamena

#### Idazkari andrea

Jakinarazi du Moreno Heras andreak karguari uko egin izanaren ondorioz Batzordeko kide bat izendatu behar dela.

Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna proposatzen da Batzorde honetako kide gisa Moreno andrearen ordean.

Halaber, Idazkariak jakinarazi du 2015eko urrian ORDIZIA ORAIN alderdiko Antxon Sanz Lekuona jaunak zinegotzi karguari uko egin izanaren ondorioz, eta nahiz eta Maria Jesus Soto de los Santos izendatu alderdi honetako zinegotzi, ez zela Gai Arrunten Batzordeko kideen aldaketarik egin. Zuzenketa egin da.


Beraz, Gai Arrunten Batzordea honela eratuta geratzen da:

**LEHENDAKARIA: JOSE MIGUEL SANTAMARIA EZEIZA**

#### PARTAIDEAK:

- Jose Ignacio Iturrioz Gotor
- Arantxa Fernandez Alvarado
- Belén Maiza Urrestarazu
- Izaro Intsausti Zinkunegi
- M<sup>a</sup> Jesus Soto De Los Santos
- Iñaki Dubreuil Churruca
- Aztergaietan gaiak sartu dituzten arloko delegaduak.

#### Sukia Galparsoro andrea



**Ordiziako Udala**  
(Gipuzkoa)

2017IOSB0001

Batzordekide gisa aritu da eta beraz, denbora honetan guztian zehar bere jarduna baliozkotzen da.

Dubreuil jn.

Adierazi du Osoko bilkurarako gaien Batzordean, Majori Kiroldegia SMn eta Ordizia Lantzen SAn emakume eta gizonen arteko parekotasuna mantendu beharko litzatekela.

### Bozketa

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0



## **7.- Udaleko ordezkariaren izendapena ORDIZIA LANTZEN S.An.**

### Proposamena

Alkate jn.

Angelica Moreno andrearen ordezkari Arantxa Fernandez Alvaredoren izendapena proposatzen dela adierazi du Ordizia Lantzen SAKo Administrazio Kontseiluko kide izateko.

Administrazio Kontseilua honela eratuta geratzen da:

**LEHENDAKARIA: JOSE MIGUEL SANTAMARIA EZEIZA**

**PARTAIDEAK:**

- Jose Ignacio Iturrioz Gotor
- Arantxa Fernandez Alvaredo
- Igor Eguren Izagirre
- Adur Ezenarro Agirre
- Miren Alazne Sukia Galparsoro
- Iñaki Dubreuil Churruca.

### Bozketa

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 y PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

**Idazkariak adierazi du izendapen honek Administrazio Kontseiluko kide kargua berritzea eta eskritura publikoa eta merkataritza erregistroa egitea eskatzen duela.**



## **8.- Udaleko ordezkariaren izendapena SASIETAN**

### Proposamena

#### Alkate jn.

Azaldu du Mankomunitateko ordezeko gisa ordezkaritza zuen Moreno Heraz Andrea ordezkatzeko Aramburu Ganzarain jauna proposatzen dela ordezkari gisa, ordezeko moduan.

Sasietako ordezkaritza modu honetan geratzen da, beraz:

- Igor Eguren Izagirre
- Mila Sukia Galparsoro
- Joseba Aramburu Ganzarain (ordezkapenerako)
- Iñaki Dubreuil Churruca (ordezkapenerako)

### Bozketa

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0



Jarraian, Alkate jaunak esan du Idazkariaren jarraibideak kontuan izanik eguneko gai ordenean presazko izaeraz puntu bat sartzea proposatuko duela: Informazio Batzordeetan, Erakunde Autonomoetan eta menpeko erakundeetan zinegotziak izendatzea.



## **9.- Informazio Batzordeetan, Erakunde Autonomoetan eta menpeko erakundeetan zinegotziak izendatzea.**

Eguneko gaien zerrenda sartzeko aldeko botoak:


### Bozketa

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

#### Idazkari andrea



**Ordiziako Udala**  
(Gipuzkoa)

2017IOSB0001

2015eko urrian, Antxon Sanz Lekuona ORDIZIA ORAINeko zinegotziak karguari uko egin ostean, nahiz eta ordezkariak egin ziren praktikan, dagozkion izendapenak egin behar dira.

**OSOKO BILKURAKO GAIEN BATZORDE INFORMATIBOA.** Antxon Sanz Lekuona Miren Alazne Sukia Galparsorok ordezkatzeari proposatzen da azkeneko honek gaur egun arte burutu duen ordezkariak baliozkotuz.

Batzordea era honetan eratuta geratzen da:

LEHENDAKARIA: JOSE MIGUEL SANTAMARIA EZEIZA

PARTAIDEAK:

- José Ignacio Iturrioz Gotor
- Arantxa Fernandez Alvarado
- Igor Eguren Izagirre
- Adur Ezenarro Agirre
- Miren Alazne Sukia Galparsoro
- Iñaki Dubreuil Churruca
- Aztergaietan gaiak sartu dituzten arloko delegaduak.

**HERRI ANTZOKIA EA** Antxon Sanz Lekuona Maria Jesus Soto de los Santosek ordezkatzeari proposatzen da azkeneko honek gaur egun arte egin duen ordezkariak baliozkotuz.

Era honetan osatuta geratzen da:

LEHENDAKARIA: Jose Miguel Santamaria Ezeiza

PARTAIDEAK:

- Arantxa Fernandez Alvaredo
- Belen Maiza Urrestarazu
- M<sup>a</sup> Jesus Soto de los Santos
- Iñaki Dubreuil Churruca


**SAN JOSE EGOITZA EA** Antxon Sanz Lekuona Maria Jesus Soto de los Santosek ordezkatzeari proposatzen da azkeneko honek gaur egun arte egin duen ordezkariak baliozkotuz.

Era honetan osatuta geratzen da:

LEHENDAKARIA José Miguel Santamaria Ezeiza

PARTAIDEAK:

- Bittor Iñaki Bolinaza Alzelai
- Belen Maiza Urrestarazu
- M<sup>a</sup> Jesus Soto de Los Santos.
- Iñaki Dubreuil Churruca



**Ordiziako Udala**  
(Gipuzkoa)

2017IOSB0001

**MAJORI KIROLDEGIA, SL.** Antxon Sanz Lekuona Maria Jesus Soto de los Santosek ordezkatzea proposatzen da. Idazkariak azaldu du Administrazio Kontseiluko kide iateko izendapen hau dagoeneko Kontseiluak hartu duela eta eskriturak eginda daudela.

Era honetan osatuta geratzen da:

LEHENDAKARIA: Jose Miguel Santamaria Ezeiza

PARTAIDEAK::

- Bittor Bolinaza Alzelai
- Arantxa Fernandez Alvaredo
- Adur Ezenarro Agirre
- Jon Ander Caballero Zubelzu
- M<sup>a</sup> Jesus Soto De Los Santos
- Iñaki Dubreuil Churruca.

Bozketa

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Azkenik, informazio gisa eta erakunde eta organismoetako ordezkarien izendapenarekin lotuta, Idazkariak azaldu du 2015eko urriaren 8ko aparteko osoko bilkuran aho batez onartu zela talde politiko guztien artean adostutako akordio bat, hainbat erakundeetako Udal ordezkarien ingurukoa. Proposamena onartu zen arren ez da bilkuraren aktan jaso, eta beraz, aktan diligentziak egingo dituela jakinarazi du eta jasota gera dadin akordioa hartu izana jasoko du aktan.

***Osoko bilkura jakinaren gainean dago.***

## **10.- Galderak eta eskaerak.**

Eguren in.


Ongietorria egin dio zinegotzi izendatu berriari. Esan du bere garaian Gai Arrunten Batzordean MUNIGEXen sarrera-erregistroetara sartzeko aukera eskatu zutela. Esan du, halaber, horri buruzko txosten juridiko bat landuko zutela erantzun zitzaiela; alabaina, oraindik ez dutela txosten horren berri.

Alkate in.

Txostena idazten ari direla eta aski aurreratua dagoela erantzun dio, alabaina une honetan eta lan-kargatik geldirik dago. Arinduko da.

.....

Eguren in.



Abenduko osoko bilkurako "Galderak eta eskaerak" puntua dela-eta, honako hau adierazi nahi izan du.

- 1) Alkateak kritika egin zion UPABI legez kanpokoa dela, eta ez zela aurreko legealdian legeztatu. Gogora ekarri dio 2008an eraiki zutela, guztiz legez kanpo, pabiloi berria. Legez kanpokotasuna ordudanikoa eta urte hartan bertan sinatutako hitzarmenaren ondoriozkoa; hitzarmenak prozedura-kronograma bat ezartzen zuen. Skatea baino ez zen egin, gazteek hala eskatzen zutelako.
- 2) 2011tik 2015era bitarteko aurrekontuetan CAFk egiten duen aprobetxamenduaren % 10i dagokion monetarizazioa esleitzeak herritarrengan nahasmendua sor dezake.

Xelebrea iruditzen zaio ondasun higiezinaren gaineko zergaren (OHZ) kontzeptupean 200.000 euro kobratu gabe utzi zirela esatea, egiazki zergaren sortzapena eraiki zen unean bertan gertatzen denean, eta ez eskatzea eraikin hori legeztatua egotea, EIOZekin (eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga) gertatzen den moduan (hori bai kobratu zitzaion CAFi).

Hainbat udal kontu-ikuskatzailerik egindako kontsultei erantzundakoaren arabera, zerga obrarekin eta eraikitzearekin sortzen da.

Eguren jaunak UPABI eremuarekin jarraituz esan du 66 bilera egin zirela bere agintaldian, eta arazoa ez zela izan landu ez izana, baizik eta URAK Ur Kontsultatortik ordura arte landutako guztia hankaz gora bota zuen txostena bidali zutela; horrek izapide guztiak luzatu zituen.

Egiazko datuak erabili behar dira legez kontrako zerbaiten akusazioa egingo bada. Esan du ez dela legez kontrakorik ezer egon.

#### Alkate in.

Esan du 2011-2015 legealdian egin den hirigintza-kudeaketa bakarra GARBIGUNE eremuko arau subsidiarioen xedapen-aldaketaren aurrerapena izan dela. 2012ko urrian, instalazioa inauguratu zen, eta geroztik ez da ezer egin.


UPABlri dagokionez, alkateak erantzun dio 2007ko legealdian CAFekin hitzarmena onartu eta sinatzeaz gain, arau subsidiarioen xedapen-aldaketa hasiera batean onartu zela, eta hasierako onespen hori dela dokumenturik garrantzitsuena eta izapideetatik lanik nekosoena.

2011n, CAFen monetarizazioa onartu zen, enpresarekin hori ordaintzea negoziatu zelako. Ez du esan galdu zirenik, geroago kobratu zirela baizik, eta, halaber, Skate-eremua segurtasunagatik urbanizatzea adostu zela, harik eta zubia edo pasabidea eraiki arte, URAKekiko kudeaketak luzeak baitira.

Aurreko legealdian egin beharrekoa ez zela egin esan du, eta horren ondorioz dirua galdu zela.

#### Ezenarro in.

Esan du Foru Ogasunak eta Katastroak ez dutela zertan inolako legeztapenik eskatu, ezta hirigintza-plangintza bukatuta egon behar duenik ere OHZ kitatzeko. Eraikuntza egotea baino ez.



Aurreko kontu-hartzaileak defendatu zuen EIOZ zerga kitatzeko ez zela nahitaezkoa obra lizentzian babestua egotea, obra egitea baizik.

Horregatik, 2008an, alegia pabiloia eraiki zen urtean, kobratu beharko zatekeen OHZ.

Eguren in.

Haren esanetan aurreko legealdian ezer ez zela egin esatea eta aldi berean URAK partzuergoarekin arazoak egon direla aitortzea ez dela bidezkoa eta zentzugabekeria dela.

Alkate in.

2011-2015 legealdian onartu diren hirigintza- eta kudeaketa-agirietako batzuk aipatu ditu: Arkarte, Agarre, Iturtxo, Goierriko Plan Berezia, Oiangualde (Promotora del Goierriarekin hitzarmena), LORTEK guneko osoa, GOIEKlrekin sinatutako hitzarmena, eta abar. Izapide horietako askok ere URAK partzuergoaren txostena behar zuten.

Eguren in.

Pozten du gauzak ondo atera izanak, baina berriro dio URAK partzuergoarekin bideratutako izapideak goitik behera aldatu zuela irizpidea UPABIn. Bere iritziz, halako erasoak egitea jakinik kudeaketa ez zegoela beraien esku, uren administrazioaren esku baizik, guztiz bidegabea da.

Alkateari eskerrak eman dizkio 300.000 euroez emandako azalpenengatik.

Ezenarro in.


Bere iritziz, UPABIn egin ziren gauzak atzekoz aurrera hasi ziren, teilatutik. Lehenik eremuaren gaineko plangintza egin behar da, eta ondoren kudeatu.

.....

Sukia and.

Zinegotzi izendatu berriari ere ongietorria egin dio, eta kontu hauei buruz galdetu du:

- Angelica Morenok zuen arduraldi partziala beste zinegotziren batek hartuko ote duen bere gain. Alkateak erantzun dio ez dela halakorik aurreikusi.
- Klausula sozialei buruz bere garaian osoko bilkurak onartu zuen LABen mozioari buruz. Erantzuna atzeratzen ari da. Osoko bilkuran erabakitakoaren arabera, txosten juridiko bat idatziko zen hiru hileko epean.
- Stop kaleratzeak-i buruz. Alkateak erantzun dio haiekin egon direla. Sukia andreak eskatu dio talde guztiak kontuan hartzea, eta azkar jokatzeari.



**Ordiziako Udala**  
(Gipuzkoa)

2017IOSB0001

- Gure Esku dago. Oraindik jaso ez duten diru-laguntza bat esleitua dutela esan du. Alkateak erantzun dio kontu-hartzailea ordainketak eguneratzen ari dela, epe zehatz baten barruan bete behar zituen beste lan batzuekin lanpetuta egon baita.
- Sukia andreak dio prentsaren bitartez jakin duela ARARTEKOK gomendioa helarazi diola udalari adin txikikoei alkohola saltzearen inguruan. Zergatik ez zaie horren berri eman?

Dubreuil jn.

Erantzundakoaren arabera, informazioa betetzeko eskakizun bat jaso zuten; eskakizun hori beteta, orain hau iritsi da. ARATEKOK jasotako keak batez ere telefono-dei batzuk izan omen dira. Udal gehiagorekin ere gauza bera egingo dute, baina lehenak izan gara.

Prebentzio-neurriak areagotzea gomendatzen dute, baina ez da zehazten zenbatekoa izan behar duen intentsitateak.

Adikzio-plana idazten ari gara; hori alderdi politiko guztiei bidaliko diegu, gerora osoko bilkuran onartzeko. Lanean ari garela irizten dio, eta prebentzio-maila onargarria lortuko dugula.

Adin txikikoei alkohola saltzeari dagokionez, kontrol-maila handiagoa lortu dugu; adibidez, San Bosco egunean (bihar, hain zuzen ere). Dagoeneko zenbait isun jarri dira adin txikikoei alkohola saltzeagatik.

Sukia andreak berriro dio prentsaren bitartez jakin duela kontua hau.

Dubreuil jaunak erantzun dio idazkia pasa den astean iritsi zela.

.....


Manolo Iturrioz

Jendearen artetik bi galdera egin ditu:

- 1) Neurriak hartzen badira, bere iritziz neurri horien norainokoa aztertu behar da, eta ez daki hartzen diren neurri horiek bakarrik alde bati eragiten dioten. Alegia, ikastetxeetara jotzen dugu, baina familietara? Zer ondorio izan dezakete hartzen ditugun neurriek familian lantzen ez baditugu?
- 2) UPABI dela-eta, aurrekontuetan jaso baina kobratu ez dugun diru-sarrera batez hitz egin dugu.

Alkate jn.

Erantzundakoaren arabera, kontabilitateari dagokionez, zorpetzea edo gastua ez egitea ekar dezakeen desoreka sortzen du.




**Ordiziako Udala**  
(Gipuzkoa)

2017IOSB0001




Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.



**Ordiziako Udala**  
(*Gipuzkoa*)

2017IOSB0001





**Ordiziako Udala**  
(*Gipuzkoa*)

2017IOSB0001